

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	LOTURA-ELEMENTUEN KALKULUA	Iraupena	50
		Baldintzatua	
Kodea	UF0607		
Lanbide-arloa	FABRIKAZIO MEKANIKOA		
Lanbide-eremua	Eraikuntza metalikoak		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Galdaren eta egitura metalikoen diseinua	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Galdaragintzako eta egitura metalikoetako kalkuluak	Iraupena	170
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Eraikuntza metalikoetako eraikuntza-irtenbideak	Iraupena	90
	Eraikuntza metalikoetako probak eta saiakuntzak	Iraupena	30

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC1147_3ko LB1 eta LB2 lanbide-burutzapenekin, lotura-elementuen kalkulari dagokionez: GALDARAGINTZAKO ETA EGITURA METALIKOETAKO KALKULUAK ETA PROBA-PLANAK EGITEA.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Lotura-elementuen dimentsioak kalkulatzea (soldadura, torlojuak, etab.), laneko esfortzuak eta tentsioak jasateko, kalitate-arauak eta laneko eta inguruneko arriskuak prebenitzeko arauak betez.

EI1.1 Lotura-elementuen kalkuluan parte hartzen duten esfortzuak definitzea (trakzioa, konpresioa, ebakidura edo besteren bat).

EI1.2 Lotura-elementuen forma eta dimentsioak kalkulatzea, ezarritako segurtasun-koefizienteak kontuan izanik.

EI1.3 Fabrikazio komertzialeko elementuak (torlojuak, larakoak, girgiluak, begi-torlojuak, besteak beste) hautatzea jasaten dituzten esfortzuak kontuan izanik.

A2: Lotura-elementuetarako behar diren eraikuntza-irtenbideak garatzea (soldadura, torlojuak, etab.), esfortzuak, forma geometrikoak eta eskatutako espezifikazioak kontuan izanik, eta kalitate-arauak eta laneko eta inguruneko arriskuak prebenitzeko arauak betez.

EI2.1 Hartutako eraikuntza-irtenbidean erabiltzen diren forma eta tekniken ezaugarri geometrikoak deskribatzea.

EI2.2 Kalkulu-emaizak eta hartutako eraikuntza-irtenbidea erlazionatzea.

EI2.3 Aurrez dimentsionatutakoak, ardatzak, aplikatu beharreko arauak, profila eta lotu beharreko xafak, besteak beste, definituak dituen lotura-elementu baterako:

- Hasierako datuak izatea, lortu nahi den eraikuntza-irtenbidearen arabera.
- Egindako eraikuntza-irtenbideak hasierako kondizio aurreikusiei erantzuten diela egiaztatzea.
- Arau-bildumak eta taulak, besteak beste, zehaztasunez eta doitasunez erabiltzea, lortutako emaitzak eskatutako arau eta espezifikazioekin bat etorritik.
- Definitutako lotura-elementua xehetasuneko eraikuntza-plano batean normalizatzea.

Edukiak

1. Galdaragintzarako eta egitura metalikoetarako lotura soldatuak.

- o Soldadura-prozedurak: ekarpen-materiala.
- o Soldadura-kordioen motak.
- o Karga estatiko eta aldakorren eraginpean jarritako lotura soldatuen kalkulu praktikoa:
 - Antolamendu orokorrak.
 - Angelu-soldadura. Ezaugarriak.
 - Topekako soldadura. Ezaugarriak.
- o Arauak eta taulak aplikatzea lotura soldatuetan.
- o Deformazioak eta tentsioak lotura soldatuetan. Deformazioak zuzentzea.

2. Galdaragintzarako eta egitura metalikoetarako lotura errematxatuak.

- o Errematxe-motak.
- o Errematxe bidezko lotura baten ezaugarriak.
- o Lotura errematxatuen kalkulu praktikoa.
- o Arauak eta taulak aplikatzea lotura errematxatuetan.

3. Galdaragintzarako eta egitura metalikoetarako lotura itsatsiak.

- o Itsasgarri-motak.
- o Lotura itsatsien ezaugarriak.

- Osagaiak eta haien aplikazioa.
- Lotura itsatsien kalkulu praktikoa.
- Arauak eta taulak aplikatzea lotura itsatsietan.

4. Galdaragintzarako eta egitura metalikoetarako lotura desmuntagarriak.

- Torloju arruntak, kalibratuak eta erresistentzia handikoak.
- Lotura desmuntagarrien ezaugarriak.
- Lotura desmuntagarrien kalkulu praktikoa.
- Arauak eta taulak aplikatzea lotura desmuntagarrietan.

5. Galdaragintzako eta egitura metalikoetarako loturak diseinatzeko eta kalkulatzeko programak.

- Diseinuan eta kalkuluan gehien erabiltzen diren programak.
- Oinarriko diseinua, eta loturetarako kalkulu-datuak lortzea.
- Lotura-kalkulu baten aplikazio praktikoa.

C atala: ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.

Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.

- 25 urte baino gehiagokoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Trebakuntza-atal hau egiteko, UF0606 gainditua izan behar du: eraikuntza metalikoetako eraikuntza-irtenbideak.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Galdaren eta egitura metalikoen diseinua.